

## **EUSKARAREN NORMALIZAZIOA HEZKUNTZAN (2000-2010): ULIBARRI PROGRAMA. EUSKARRI TEORIKOA, METODOLOGIA ETA FAKTORE AZALGARRIAK**

**Tesiaren egilea:** Jasone Aldekoa Arana

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Jose Maria Madariaga Orbea eta Xabier Isasi Balantzategi

**Tesiaren laburpena:**

Euskararen normalizazioan hezkuntzak, Ulibarri programaren laguntzaz, 2000 eta 2010 bitartean egin duen ibilbidea aztertu da lan honetan. Izan ere, Arratia eta Nerbioaldeko hogeita hamar ikastetxetan dozena bete urtean garatu diren hizkuntza normalkuntzako proiektuen (HNP) eragina aztertzea izan da lan enpirikoaren xedea. Alabaina, horretarako ezinbestekoa egin zaigu lehenik eta behin kontzeptuak argitzea eta joko-zelaia definitzea, ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-alorrean gaiak izan duen bilakaera orokorra deskribatzea, eta, azkenik, HNPAk gidatzen dituen Ulibarri programaren xehetasunak definitzea. Hiru multzo horiek, hizkuntza-ukipen, hizkuntzen irakaskuntza eta hizkuntza-plangintzaren gaineko teoriak baliatuz, osatu dute lanaren marko teorikoa.

Euskararen erabilera arautzen duen Oinarrizko Legea (10/1982, azaroaren 24koa) xedatu zenetik, EAEko ikastetxe guztietan, herri ikastetxeetan zein itunpekoetan, hainbat ahalegin egin dira ikasleek nahitaezko ikasketak betetzen dituztenerako, gure erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzeko adina ezagutzen dituztela ziurtatzeko. Hizkuntza-plangintzaren proposamenak eta hizkuntzen irakaskuntzarako psikopedagogiak gomendatutako lan-ildoak zehatz eta sistematikoki jarraitzen direnean ere (Cenoz, 2009; Iza, 2010), ikastetxeetan ikusten da ikasleek euskara ikasi arren, hizkuntza-gaitasuna lortu arren alegia, euskararen erabilera ez dela proportzio berdinean bermatzen. Esan nahi da, gure artean euskara jakiteak ez duela ziurtatzen egoera formaletatik kanpo, behintzat, euskara erabiliko dugunik (Artola *et al.*, 1991). Erkidegoan euskaraz irakasten duen irakasle oro aspaldi ohartu da arazo horretaz eta Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere hainbat lege, neurri eta laguntza bideratu ditu adin batetik beherako biztanleria elebidun orekatua bihurtu eta euskararen erabilera gizarteratu dadin.

Euskararen erabilera suspertzea nahi duen Ulibarri programaren helburuak, antolamendua eta ezarpena deskribatu dira, hain zuzen ere, azken hamarkadan egindakoaren emaitzak egiaztatzeko. Izan ere, batetik, Ulibarri programak duen gizarte-gailentasuna, eta, bestetik, lan horretan dihardugunon ikasteko gogoak

eraman gaitu aztertzeraz HNPeK bultzatzen dituzten interbentzio orokorrek zenbat esparrutan eragiten duten, eta bereziki zein den haien eragina ikasleek euskara erabil dezaten egoera formaletan eta ez-formaletan.

Emaitzek berretsi digute, goitik behera eta behetik gorako plangintzen elementuak bateratzen dituzten HNPeK eragina dutela bai hiztunek, bai instituzioek baita gizarte mailan ere egiten den euskararen erabileran.